

ZIURTAGIRIA Osoko Bilkuraren erabagia

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2024-01-25(e)(a)n, OSOKO BILKURAK erabagi hau hartu dauela:

4.- 2023. URTEKO INBENTARIOKO ZUZENKETA ONARTZEA.

Xedea

2023. urteko inbentarioko zuzenketa onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko urtarrilaren 8ko Alkatetza Probidentziaren bidez erabaki da espedientea irekitzea, 2023 ekitaldiko ondasun eta eskubideen inbentarioaren zuzenketa onesteko.

Bigarrena: Idazkaritza Sailak Ondasunen Inbentario Orokorra zuzentzeko espedientea sortu du, 2023. urtean izandako alta, baja eta aldaketekin.

Hirugarrena: 2024ko urtarrilaren 9an, Idazkaritzako AOTak txosten juridikoa eman du.

Argudioak

Lehenengoa: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 32. artikulua dio administrazio publikoek beren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa izan behar dutela.

Toki esparruan, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onartzen duenak, eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 17. artikulua, toki entitateek beren ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratua egiteko betebeharra ere jasotzen dute.

Bigarrena: Halaber, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 33.1 artikulua ezartzen duenez, udal inbentarioaren zuzenketa urtero egingo da, eta bertan jasoko dira epe horretan udalaren jabetzako ondasun eta eskubideen gorabehera guztiak. Horren ondorioz, ondasun horien eskurapenak, salmentak, trukeak, zortasunak, kalifikazio juridikoen aldaketak eta inbentarioaren xede diren ondasun eta eskubideetan eragina duen beste edozein ekintza adieraziko dira.

Hirugarrena: Gaikuntza Nazionala duten Toki Administrazioen Funtzionarioen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2.k artikulua



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000E996D00L0Q5Y4W5G5R8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/01/2024 11:01:35

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0007
Data: 08/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000E996D00L0Q5Y4W5G5R8



idazkaritza funtzio publikoaren barruan sartzen du ondasunen inbentarioa eramatea. Horrekin bat etorritik, 1372/1986 Errege Dekretuaren 32. artikulua "eramatearen" funtzioa osatzen du, inbentarioa udaleko idazkariak baimenduko duela esanez, alkatearen oniritziarekin. Inbentario bereizien kasuen (erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta lurzoruen udal ondarea), idazkariaren sinadura dagokion erakundeko zuzendari edo administratzailearena baino lehen joan beharko da.

Laugarrena: Bestalde, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 32.1 artikulua arabera, inbentarioaren urteko zuzenketa onartu ondoren, inbentarioaren kopia bidaliko zaio Estatuko eta Autonomia Erkidegoko administrazioei.

Bosgarrena: Urteko inbentarioa zuzentzeko eskumenari dagokionez, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 34. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Osoko Bilkura da organo eskuduna.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: 2023. urtean ondasunen inbentarioetan, Bermeoko Udaleko, Berualako eta lurzoru ondarean egondako aldatetarik onartzea, hurrengo tauletako balioekin:

BERMEOKO UDALA

AURREKO BALORAZINOA	2023 ALTAK	2023 BAJAK	2023 AMORTIZAZINOA	AZKEN BALORAZINOA
124.394.204,32€	6.590.532,98€	638.571,47€	2.218.110,41€	128.128.055,42€


BERUALA

AURREKO BALORAZINOA	2023 ALTAK	2023 BAJAK	2023 AMORTIZAZINOA	AZKEN BALORAZINOA
3.487.596,16€	0,00€	146.144,57€	65.457,51€	3.275.994,08€

UDAL LURZORU ONDAREA

AURREKO BALORAZINOA	2023 ALTAK	2023 BAJAK	2023 AMORTIZAZINOA	AZKEN BALORAZINOA
6.561.937,79€	0,00€	817.360,07€	111.989,53€	5.632.588,19€

Hori horrela, erakunde guztiak kontuan hartuta honakoa da 2023 urteko balorazioa:



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000E996D00L0Q5Y4W5G5R8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/01/2024 11:01:35

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0007
Data: 08/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000E996D00L0Q5Y4W5G5R8



AURREKO BALORAZINOA	2023 URTEKO ALTAK	2023 URTEKO BAJAK	2023 URTEKO AMORTIZAZINOA	2023 URTEKO BALORAZIOA
134.443.738,27€	6.590.532,98€	1.602.076,11€	2.395.557,45€	137.036.637,69€

BIGARRENA: 2023. urteko zuzenketaren ondoriozko inbentario orokorraren zerrenda bat igortzea Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei, akordio honen ziurtagiriarekin batera.

HIRUGARRENA: Onartutako Ondasun eta Eskubideen Inbentarioa Udalaren gardentasun atarian argitaratzea, Gardentasunari, Informazio Publikoko Eskuragarritasunari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.3 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 57.f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Idazkaritza, Ekonomia eta ATB Sailei.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua araber), Nadia Nemeh Shomaly alkatearen aginduz eta oneretziaz.

Orri-oinetan sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000E996D00L0Q5Y4W5G5R8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/01/2024 11:01:35

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0007
Data: 08/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000E996D00L0Q5Y4W5G5R8

